

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

44/2019 TXOSTENA

Gaia: San Migel inguruan lizentzia barik egindako obren ondoriozko espedientearen iraungitzea eta preskripzioa

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a artikulua

1. Aurrekariak

Lehena: 2013ko maiatzaren 6an Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen "interesdunari hilabeteko epea ematea lizentzia barik egindako obren lizentzia eskatzeko, eta obren etena agintzea, obrak legeztatu arte obrarik ezin duela egin jakinaraztea"...

Bigarrena: Erabakia jakinarazteko bi saiakera egin ostean 2013ko urriaren 3an Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen jakinarazpena.

Hirugarrena: 2014ko ekainaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen espedientea bertan behera uztea eta hasierara itzultzea. Espedientearen hasiera 2013ko maiatzaren 6an onartutakoa dela ulertzen da, ez baitago ondoren beste hasierako onarpenik interesdunari legalizatzeko aukera ematen.

Laugarrena: Espedientean zehar zenbait epai egon dira eta etxebizitzan sartzeko auto judiziala 2019ko apirilaren 30eko data dauka.

Bosgarrena: 2019ko maiatzaren 22an udaleko teknikariak etxebizitzan sartu ziren ikuskapena egiteko. Eta Arkitektoaren 2019ko ekainaren 7ko txostenaren arabera: "Aipatutako eraikuntza lanak Udalen obra lizentzia gabe eginak izan dira, beraz, ahalik eta lasterren, eraikuntza lanok legeztatu behar dira".

Seigarrena: Alkatetzak idazkariren txostena eskatu du aztertzeko San Migel inguruko hirigintzako legalitatea berreskuratzeko espedientea iraungita dagoen ala ez eta preskribituta dagoen edo ez.

2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Lurzoru eta Hirigintzako Legea



- Urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena.
- Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legea (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3.a. Xedapen Iragankorraren arabera)

2.2. Azterketa juridikoa

A. Ezkutuko ekintza edo jardueri buruz¹

Hasteko ezinbestekoa da adieraztea Bermeoko Udala **arduratu behar dela zaintzeaz** betetzen dela euskal lurzoru eta hirigintzako Legearen xedapenak eta legea osatzeko edo garatzeko emandako arauak eta gainerakoak; batez ere, legean ezarritako helburuak betetzeko eta aldarrikatutako printzipioak sustatzeko. Ahalmen horri ezingo zaio uko egin. Horretarako, **agintari eta funtzionarioak behartuta daude** ahal horietaz baliatzeko ezarritako prozedurak hastera eta izapideak egitera, kasu bakoitzerako aurreikusitako epearen barruan. Eta eginbehar hori ez betetzeak **diziplina-erantzukizuna** ekar dezake.

Udalak hirigintzako antolamenduak arautzen dituen jarduera eta ekintzak **kontrolatzeko zenbait bide** ditu. Eta bide horien artean hirigintzako ikuskapenak daude eta ikuskatzeko, egiaztatze eta kontrolatzeko aukera dago.

Hau da **hirigintza-ikuskapena**: lizentzia behar duten ekintza, operazio eta jarduera oro ezarri beharreko legearen eta lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arabekoak direla egiaztatze erabiltzen den ahala.

Ikuskatzeko eginkizun hori aurrera eramaten **laguntzeko eginbeharra izango du pertsona orok**: eskatzen zaizkien agiriak eta informazioa eman beharko dizkie funtzionarioei eta agintariei. Laguntzeko eginbehar horren barruan dago etxebizitzaren legezko izaera ez

¹ Ekainaren 30eko 2/2006 euskal legearen 204. artikulua eta hurrengoak eta 219. artikulua eta hurrengoak



duten higiezin guztietara sartzen utzi beharra. Beti ere, **hirigintzako arau-haustea** izango da, hirigintza-ikuskapenerako laguntza inolako oinarririk izan gabe ukatzea, oztopo bat izango baita ikuskatzeko ahalaz baliatzeko orduan.

Behin udalaren betebeharra eta hirigintzako ikuskapena zertan datzan azalduta **ezkututako jardueren** nondik norakoak azaldu behar dira. Izan ere, hauek izango dira ezkutuko jarduketak: lizentzia behar izanda, lege honek eskatzen duen administrazio-titulu legitimatzailek gabe edo horiek alde batera utzita nahiz horien aurka egin direnak edo egiten ari direnak.

Ezkututako jarduera baten aurrean jarraitu beharreko **prozedura 2/2006** euskal legearen 221. artikuluan jasotzen da, artikulua erabat garrantzitsua da dagokigun gaia aztertzeko:

1.– Herri-administrazio batek, bereak dituen jarduerak edo bere ardurakoa den ikuskapena egiten ari den bitartean, ezkutukotzat jo daitezkeen ekintza edo jarduketan berri izaten badu, horren berri eman beharko dio jardueron tokiko udalari. Udalak, berriz, aurreko artikuluan adierazitako etendura agindu beharko du, eta ebazpen hori eginbideetan zuzeneko erantzule gisa ageri diren pertsonen jakinarazi beharko die.

2.– Udalak ekintza edo jarduera bat ezkutuan egiten ari dela jakiten badu, eteteko agindua emango du alkateak, eta agindu hori higiezinaren jabeen jakinaraziko zaie. Jakinarazpen horretan, bestalde, deialdia egingo zaie, lehenago prozedura abiarazita, baldin eta ekintza edo jarduketa printzipioz legeztatzea bada, hura legeztatze eskara aurkez dezaten gehienez ere hilabeteko epean, eta, hala dagokionean, baita hartarako proiektu tekniko nahikoa ere. Hori guztia egiteko, legeztatze kontuan izan behar den hirigintza-informazio guztia erantsiko zaio jakinarazpenari.

3.– Aurrez proiektu teknikoa aurkeztea eskatzen duten obrak direnean, legeztatze proiektuak etxe edo eraikin berri baten proiektu teknikoari eska dakizkiokeen agiri guztiak izango ditu bere baitan. Jarduketan lehendik zeuden erresistentzia-elementu batzuk kontserbatzea jasotzen bada, saioak egingo dira elementu horien eusteko ahalmena justifikatzeko.



4.– *Udal-administrazioak, legezatzeko eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean, behin betiko ebazpena emango du, eta ekintza edo jarduketa hori legeza daitekeen ala ez jakinaraziko du.*

5.– *Jarduketa legeza daitekeela adierazten bada, lege honetan aurreikusitako prozedurak eta ezarritako epeak beteko dira, kasu bakoitzean aplikatu beharreko kontrol-lanak egiteko.*

6.– *Jarduera ezin dela legezatu adierazten bada, edo legezatzeko eskaera epez kanpo aurkeztu bada, honako hauek egiteko aginduko da, ezarri ahal izango diren zehapenak ere ahaztu gabe: a) Etxe, eraikin eta instalazioen obrak eraistea, eta lursaila jatorrizko egoerara leheneratzea, oin berriko obrak direnean. Interesdunak ordaindu beharko du hori. b) Erabilerak behin betiko etetea, hala dagokionean. c) Bide gabe eraitsitakoa berriro eraikitzea, monumentu modura katalogatu edo deklaratu edo gune babestu batean kokatuta dauden etxe, eraikin edo instalazioak direnean.*

7.– *Administrazioak, legezatzeko errekerimenduen eraginkortasuna bermatzeko, kautelazko neurri hauek hartzea erabaki dezake: a) Egikaritzen ari diren ekintza edo jarduketak direnean, lanak etetea, eta, horrez gainera, tokitik irtetea, obran erabilitako materialak eta makinak erretiratzea, eta higiezinak eta obra-instalazioak ixtea. b) Gasaren, uraren eta elektrizitatearen hornidura etetea, kasu guztietan. Salbuespen izango dira etxebizitzaren lege-izaera duten higiezinak.*

8.– *Ezkutuan egin diren hirigintzako ekintza edo jarduketak legezatzeko ez du iraungitzen hirigintzako arau-haustea egin duten pertsonen izan dezaketen zehapen-erantzukizuna.*

9.– *Legezatzeko prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak, gainera, ezkutuan egindako ekintza edo jarduketan ondorioz eta horiek legezatzeko ondorioz eman beharreko kalte-ordainak adieraziko ditu.*



Hirigintzako eta lurraldeko antolamenduaren aurkakotzat deklaraturako ezkutuko ekintza eta jarduketak legeztatu ahal izango dira, bakar-bakarrik, hirigintzako plangintza aldatu edo berrikusi ostean. Nolanahi ere, bete beharrekoa izango da 106. artikuluan ezarritakoa.

B. Hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko prozeduraren iraungitasuna, hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko akzioen iraungitasuna, prozedura zehatzailearen iraungitasuna eta preskripzioen kontzeptuei buruz

Nahitaezkoa ikusten da bereiztea hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko **prozeduraren** iraungitasuna, **akzioen** iraungitasuna eta prozedura zehatzaileen iraungitasuna zein preskripzioa, instituzio **konplexuak** direlako eta sarritan **nahasteak** sortu ahal direlako.

Bai doktrinak, bai jurisprudentzia **irizpide aldakorrak** dituzte kontzeptu hauei buruz eta horien ondorioei buruz. Beraz, irizpide argi eta bakarra izatea honi buruz oso zaila izango da. Kasu honetan bereizketa hori legea, jurisprudentzia² eta zuzenbideko printzipio orokorrak kontuan hartuta egingo da.

a) Hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko prozeduraren iraungitasuna:

Kontuan izanik espediente hau 2013.urtean hasi zela 1992ko azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legera jo behar dugu. Legeak³ dio prozedura baten beren beregiko ebazpena jakinarazteko **gehienezko epea** dagokion prozedura arautzen duen arauan zehaztutakoa

² 2018ko maiatzaren 31ko Auzitegi Gorenaren epaia, 2003ko ekainaren 12 Auzitegi Gorenaren epaia, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko azaroaren 27ko epaia, Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko ekainaren 25eko epaia (RJCA 2009/576), Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko ekainaren 4ko epaia, Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko ekainaren 4ko epaia, Asturiaseko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2000.urteko uztailearen 20ko epaia.

³ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legearen 42.2 artikulua



izango dela. Gehieneko epe hori prozedurei dagozkien arauetan ezarrita ez badago, hiru hilabetekoa izango da. Epe hori honela zenbatuko da (*dies a quo*):

a) Ofizios hasitako prozeduretan, **hasteko erabakiaren egunetik aurrera**.

Dena den, guri dagokigun kasuan, epe hori beren beregi jasota dago Euskal Lurzoru eta Urgintzako Legean⁴ eta hain justu ere **3 hilabeteko epea** ezartzen da. Izan ere, esaten da: "*Udal-administrazioak, legezatzeko eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean, behin betiko ebazpena emango du, eta ekintza edo jarduketa hori legezta daitekeen ala ez jakinaraziko du.*

Jarduera ezin dela legezatu adierazten bada, edo legezatzeko eskaera epez kanpo aurkeztu bada, honako hauek egiteko aginduko da, ezarri ahal izango diren zehapenak ere ahaztu gabe: a) Etxe, eraikin eta instalazioen obrak eraistea, eta lursaila jatorrizko egoerara leheneratzea, oin berriko obrak direnean. Interesdunak ordaindu beharko du hori. b) Erabilerak behin betiko etetea, hala dagokionean. c) Bide gabe eraitsitakoa berriro eraikitzea, monumentu modura katalogatu edo deklaratu edo gune babestu batean kokatuta dauden etxe, eraikin edo instalazioak direnean."

Hori horrela, gure kasuan epea **hasiko da** zenbatzen (*dies a quo*) legezatzeko eman zaion epea bukatzen den hurrengo egunetik, hau da, 2013ko azaroaren 4tik (2013ko urriaren 3an jakinarazpena argitaratu zen BOEn eta hilabete eman zitzaion legeztapen proiektua aurkezteko).

Ebazpena eman eta jakinarazteko epea **bukatuko da** (*dies ad quem*) egiteko aginduaren ebazpena eman eta jakinarazten denean. Erregela orokor moduan ebazpen hori 2014ko otsailaren 4a baino lehen jakinarazi behar izango litzateke eta gaur egun oraindik ez da egin.

⁴ Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzako Legearen 221.4 eta 6 ataletan.



Administrazio Publikoen Araubide Juridikoa eta Prozedura Administratibo Erkidearen legeak ⁵ (gaur egun indarrean dagoen 39/2015 Legeak zentzu berean) dio ofizioz hasitako prozeduretan, gehieneko epean beren beregiko ebazpena eman eta jakinarazi ez izatearen **ondorioak** hurrengoak direla:

Zehatzeko ahalak edo, oro har, esku hartzeko ahalak baliatu baditu Administrazioak prozeduran, interesdunei ondorio kaltegarriak edo zorrak sorrarazteko modukoak, **iraungi egingo da prozedura**. Kasu horietan, prozedura iraungi dela adierazten duen ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 92. artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.

Prozedura geldiarazten bada interesdunari inputa lekiokoen arrazoiren baten ondorioz, ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epea etengo litzateke.

Legeak ⁶ (eta 39/2015 legeak zentzu berean) aldi berean dio prozedura iraungitze hutsak **ez duela besterik gabe ekarriko** partikularraren edo Administrazioaren **akzioak preskribatzea**; baina prozedura iraungiek **ez duela geldiaraziko** preskripzio-epearen zenbaketa.

Legearen esanetan gerta daiteke **iraungitzea ez aplikagarri izatea**, sortutako arazoa **interes orokorrekoa bada edo arazoa mugatzeko eta argitzeko komeni bada bideratzea**.

b) Hirigintzako legezketasuna berreskuratzeko akzioen iraungitasuna:

Auzitegi Gorenaren 1991ko ekainaren 5eko epaiaren arabera (1991/4865) kasu honetan hitz egin behar dugu administrazioaren **lizentzia barik egindako ustezko obra** baten aurrean udalak **erreakzionatzeko daukan epeari** buruz; hots, akzioaren iraungitasun epeari buruz eta ez preskripzioari buruz.

⁵ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legearen 44.2 artikulua

⁶ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legearen 92. artikulua



Hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko akzioen iraungitasunaren epea Euskal Lurzoru eta Hirigintzako Legean dago jasota. Hain justu ere legearen 224.4 artikulua dio: *Obrak, lanak edo instalazioak erabat amaitu direnetik, edo kanpo-itxurak horiek egin direla adierazten duenetik, lau urte igaro ondoren, administrazioak ezingo du etxe, eraikin edo instalazioak eraisteko agindu.*

Etxe, eraikin edo instalazio horiek, halere, antolamenduz kanpo dauden etxe, eraikin eta instalazioen araubideari lotuta geldituko dira, eta eraberritze, handitze edo finkatzeren bat egin behar den guztietan, legeztatze proiektu bat onartzea errekerituko da – legeztatzea posible bada behintzat–. Proiektu horrek, betiere, hirigintzako zerbitzuetan, eremu publikoen zuzkiduran edo antzekoetan eragindako kaltea konpontzeko –edo besterik ez bada, kalte hori gutxitzeko– beharrezkoak diren neurriak jasoko ditu. Administrazioak ofizios onartu ahal izango ditu proiektu horiek.

Beraz, argia da euskal legea adieraztean akzioaren iraungitasun epea 4 urtekoa dela.

Epe hori hasiko da zenbatzen obrak, lanak edo instalazioak erabat amaitu direnetik, edo kanpo-itxurak horiek egin direla adierazten duenetik. Jurisprudentziak⁷ sarritan adierazi duenez obrak edo lanak erabat amaitu direla, edo kanpo-itxurak horiek egin direla frogatzeko **karga interesdunak** dauka, bera baita borondatez klandestinitate egoeran jarri dena eta *dies a quo* zehazteko zailtasunak ezarri dituena. Hau da, kasu honetan ezin dugu zehazpen espedienteen errugabetasun-presuntzioari buruz hitz egin.

Dena den, ezin dugu ahaztu badagoela jurisprudentzia⁸ adierazten duena, **etxe barneko obren** inguruan epea noiz hasten den zehazteko aplikatzen den araubide juridikoa dela “de cuasi-imprescriptibilidad”.

Doktrina sendoa dago *dies ad quem* deritzona zehazterakoan jarraitu beharreko irizpideari buruz: Ulertuko da epea bukatu dela hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko errekerimendua (eraispena, lagapena, berreraikitzea) **jakinarazten denean**.

c) Prozedura zehatzailean iraungitasuna:

⁷ Auzitegi Gorenaren 1991ko abenduaren 18ko epaia (RJ 1992/309)

⁸ Madrileko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko ekainaren 4ko epaia



Aurretik aipatutako arau orokorretatik at, adierazi behar da ulertzen dela prozedura zehatzailea iraungiko dela **6 hilabeteko epean**. Izan ere, zehapen ahalmenaren euskal legeak⁹ zehazten du jardunbidea hasi eta hurrengo sei hilabeteko epean ebazpena jakinaraziko ez balitz, ebazpen hori iraungita geratuko litzatekeela 30/1992 Legeak ezartzen duen moduan.

Sei hilabeteko epea **geldiarazi** egingo da lege honetan ezartzen den kasuetan eta, horretaz gain, jardunbidea interesatuei egotz dakizkiekeen arrazoiengatik gelditzen denean.

Epe hori **hasiko da zenbatzen** espedientea hasteko akordioa hartzen denean; eta **bukatuko da** zehapen ebazpena jakinarazten den epean.

Zentzu honetan aipatzekoa da Arartekoak udal honi egindako abenduaren 15eko 24/2010 gomendioa.

d) Arau haustearen eta zehapenaren preskripzioa:

Hirigintzako arau haustea eta horien ondorioz jarritako zehapenak preskripzio epe bati lotuta daude. Izan be, prozedura zehatzaileen **preskripzio epeei lotuta** daude.

Epe horiek Lurzoru eta Hirigintzako euskal Legearen¹⁰ arabera hauexek dira:

Arau-haustea indargabetzea:

Lege honetan aurreikusitako arau-haustea epe hauetan geratuko dira indarririk gabe:

a) Oso larriak, bost urtetara.

b) Larriak, lau urtetara.

c) Arinak, bi urtetara.

Indargabetzeko epearen hasiera, hain zuzen, egindako obrak aurreikusitako helburu edo erabileretarako prest daudenean eta kanpo-itxurari esker administrazioak obrak eginda daudela jakiten duenean izango da. Erabilera edo jarduera bati dagokion arau-haustea ez da indargabetzen hasiko hori egiten ari den bitartean.

⁹Otsailaren 20ko 2/1998 Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Legearen 43.4. artikulua

¹⁰ Ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoruaren eta Hirigintzako Legearen 229 eta 230 artikulua



Dena den, kasu honetan

*Arau-haustearen indargabetzea **eten egingo da zehapen-prozedurari ekin zaiola jakinarazten denean.***

Aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera, baldin eta administrazioaren egintza batek baimendutako jarduketa baten ondorioz hirigintzako arau-hausteren bat eragiten bada, egintza legitimatu zuten administrazio- egintzak deuseztatzen direnean hasiko da indargabetzeko epea.

Zehapenak indargabetzea:

*Oso arau-hauste larriengatik ezarritako zehapenak bost urtera indargabetuko dira, **larriak hiru urtera eta arinak urtebetera.***

Zehapenak indargabetzeko epea, hain zuzen, horiek jartzeko ebazpena administrazio-bidean irmo bihurtu eta hurrengo egunean hasiko da.

Laburbilduz, bereizi behar ditugu batetik hirigintzako legezketasuna berreskuratzeko espedientea eta zehapen espedientea.

Hirigintzako legezketasuna berreskuratzeko espedientearen kontuan izan behar da: prozeduraren iraungitzea (3 hilabetetan) eta legezketasuna berreskuratzeko akzioaren iraungitasuna -zenbait autonomia araudietan preskripzioa deitzen diotena- (4 urtean).

Zehapen espedientearen aintzat hartu behar da: prozeduraren iraungitzea (6 hilabetetan) eta arau-hauste eta zigorraren preskripzioa (arau-haustea oso larri moduan kalifikatzen bada 5 urtean, larri moduan kalifikatzen bada 4 urtean, arin moduan kalifikatzen bada 2 urtean; eta zehapenak 5, 3 eta 1 urtean, hurrenez hurren).

C. Hirigintzako legezketasuna berreskuratzeko espedientearen iraungitasuna eteteari buruz

Esan dugun moduan hiru hilabeteko epean udalak espedientearen ebatzi izan behar izan du. Epe hori **hasiko da** zenbatzen (*dies a quo*) legeztatzeke eman zaion epea bukatzen den hurrengo egunetik, hau da, 2013ko azaroaren 4tik eta epe hori **bukatuko da** (*dies ad quem*) egiteko aginduaren ebazpena eman eta jakinarazten denean.



Hasiera batean, espedienteak ez irautzeko 2014ko otsailaren 4a baino lehen jakinarazi behar izango litzatekeen ebazpena. 2013 abenduaren 30ean Udalak erabaki zuen alegazioak ez onartzea eta erabazpena agintzea eta **erabaki hori 2014ko urtarrilaren 21ean jakinarazi zen.. Beraz, epe honetan espedienteak ez zegoen irautgita.**

Baina, 2014ko ekainaren 23an Tokiko Gobernu batzarrek erabaki zuen espedienteak bertan behera uzten eta hasierara itzultzea. Ez dago beste akordiorik espedienteak zabalitzen eta legezatzeko epea ematen; beraz, ulertzen da 2013ko maiatzaren 6ko akordioa eta honen jakinarazpena mantendu zirela.

Izan ere, ulertu ahalko litzateke 2014ko ekainaren 23an, bertan behera uzten denean espedienteak, epea berriz hasten dela zenbatzen, eta horrela izango litzateke interesdunari legalizatzeko aukera berriz eman izango balitzaioke. Baina ez zen horrela izan; beraz, ulertzen da 2013ko maiatzaren 6ko akordioa eta honen jakinarazpena mantentzen direla *dies a quo* finkatzeko.

Kasu honetan gakoak eta zehatz-mehatz aztertu beharrekoak da ea legeak ezarritako kasuren baten ondorioz espedienteak espresuki eten bada, edo lege aginduz¹¹ espedienteak eten bada epe horretan, edo interesdunari inputa ahal zaion arrazoi batengatik espedienteak eten bada. Izatez, hasierako epetik bukaerako epera askoz jota 3 hilabete egon behar baitira eta epe hori garbian hartuta ez baita ebazpenik eman.

Hori horrela, gogorarazi behar da jurisprudentiaren¹² esanetan irautgiteak ez duela interruptziorik onartzen, salbu eta ezinbesteko kasuak badira. Bai osterak eteteko kasuak (hau da, eteteko arrazoia pasatzen denean jarraitzen du epeak kontatzen gelditu zen lekutik, berrabiarazten da, ez da interruptzioarekin gertatzen dena gertatzen, hau da, ez da zerotik kontatzen hasten).

¹¹ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administrazio Erkidearen Legearen 44.2. artikulua

¹² Madrilako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2014ko ekainaren 4ko epaia



Prozedura hasten denetik ebazten denera arte eteteko aukerak Legeak¹³ jasotzen ditu:

5. El transcurso del plazo máximo legal para resolver un procedimiento y notificar la resolución se podrá suspender en los siguientes casos:

a) Cuando deba requerirse a cualquier interesado para la subsanación de deficiencias y la aportación de documentos y otros elementos de juicio necesarios, por el tiempo que medie entre la notificación del requerimiento y su efectivo cumplimiento por el destinatario, o, en su defecto, el transcurso del plazo concedido, todo ello sin perjuicio de lo previsto en el artículo 71 de la presente Ley.

b) Cuando deba obtenerse un pronunciamiento previo y preceptivo de un órgano de las Comunidades Europeas, por el tiempo que medie entre la petición, que habrá de comunicarse a los interesados, y la notificación del pronunciamiento a la Administración instructora, que también deberá serles comunicada.

c) Cuando deban solicitarse informes que sean preceptivos y determinantes del contenido de la resolución a órgano de la misma o distinta Administración, por el tiempo que medie entre la petición, que deberá comunicarse a los interesados, y la recepción del informe, que igualmente deberá ser comunicada a los mismos. Este plazo de suspensión no podrá exceder en ningún caso de tres meses.

d) Cuando deban realizarse pruebas técnicas o análisis contradictorios o dirimentes propuestos por los interesados, durante el tiempo necesario para la incorporación de los resultados al expediente.

e) Cuando se inicien negociaciones con vistas a la conclusión de un pacto o convenio en los términos previstos en el artículo 88 de esta Ley, desde la declaración formal al respecto y hasta la conclusión sin efecto, en su caso, de las referidas negociaciones que se constatará mediante declaración formulada por la Administración o los interesados.

¹³ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legearen 42.5 artikulua



1992ko legeak aukera moduan aurreikusten du; beraz, udalak eteteko **beren beregiko erabakia** hartu behar izan du horrelako kasuren baten egon bada, eta **ez du horrelako erabakirik hartu**. Hortaz, ulertzen da epea ez dela arrazoi horiengatik eten.

Gainera, Legeak¹⁴ gogorarazten digu prozeduran sortzen diren arazo intzidentalek, baita jarduketan deuseztasunari buruzkoak, ez dutela izapidetza etengo; **errekusazioak**, ordea, **bai**.

Gogoratu behar da **auzi-administrazioaren errekurtsioak** jartzea erregela orokor moduan **ez duela** iraungitasun epea eteten.

Legearen¹⁵ esanetan: *1. La interposición de cualquier recurso, excepto en los casos en que una disposición establezca lo contrario, no suspenderá la ejecución del acto impugnado.*

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, el órgano a quien compete resolver el recurso, previa ponderación, suficientemente razonada, entre el perjuicio que causaría al interés público o a terceros la suspensión y el perjuicio que se causa al recurrente como consecuencia de la eficacia inmediata del acto recurrido, podrá suspender, de oficio o a solicitud del recurrente, la ejecución del acto impugnado cuando concurren alguna de las siguientes circunstancias:

a) Que la ejecución pudiera causar perjuicios de imposible o difícil reparación.

b) Que la impugnación se fundamente en alguna de las causas de nulidad de pleno derecho previstas en el artículo 62.1 de esta Ley.

3. La ejecución del acto impugnado se entenderá suspendida si transcurridos treinta días desde que la solicitud de suspensión haya tenido entrada en el registro del órgano

¹⁴ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legearen 74. artikulua.

¹⁵ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legearen 111. artikulua



competente para decidir sobre la misma, éste no ha dictado resolución expresa al respecto. En estos casos no será de aplicación lo establecido en el artículo 42.4, segundo párrafo, de esta Ley

Puntu honetara helduta, aztertuko da ea interesdunari egotzi ahal zaion arrazoirik dagoen espedientea etenda ulertzeko.

Aztertzen ari garen epe horretan espedienteen hurrengoak ageri dira:

2013/05/06: TGBaren espedientea hasteko erabakia

2013/10/03: BOEn jakinarazpena argitaratu

2013/11/22 Jakinarazpena jaso J.M.R

2013/12/09: Interesdunak alegazioak aurkeztu

2013/12/11: Salatzailearen informazio eskaera

2013/12/30: Udalaren erabakia alegazioak ez onartzen eta eraispena agintzeko espedientea hasten

Beraz, epe honetan eraispen akordioa hartu zen eta espedientea ez zegoen iraungita.

2014/01/21. Interesdunak akordioaren jakinarazpena jaso

2014/02/06. Interesdunaren alegazioak, besteak beste, errekusazioa eskatzen

Esan dugunez, Legeak¹⁶ gogorarazten digu prozeduran sortzen diren arazo intzidentalek, baita jarduketan deuseztasunari buruzkoak, ez dutela izapidetza etengo; **errekusazioak**, ordea, bai. Dena den, aurretiaz eraispen erabaki hartunda egon da.

2014/06/09. Kanpoko aholkularitza juridikoaren txostena

Eraispen erabakia hartu arte **ez dirudi** interesdunari inputa ahal zaion arrazoirik dagoenik espedientea eteteko, bai ordea, lege aginduz, 2014ko otsailaren 6tik aurrera errefusatzea eskatzen denik lege aginduz eteteko arrazoia dago. Hala ere, ondoren

¹⁶ Azaroaren 26ko 30/1992 Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Prozedura Administratibo Erkidearen Legearen 74. artikulua.



ikusiko dugunez ekintza guzti horiek bertan behera uzten dira eta espedientearen hasierara itzultzen da.

2014/06/23. Tokiko Gobernu batzarraren erabakia espedientearen bertan behera uzten eta hasierara itzultzen

2014/06/30 → Jakinarazpena interesdunari (jasota 2014/07/02)

2014/06/27 → Errefusatzea ez da onartzen.

2014/07/24 → Jakinarazpena (jasota 2014/08/08)

2014/07/23 → Frogaldia zabaltzen da. 5 egun

2014/07/30 → Alegazioak ez errekusatzeari

2014/08/01 → Jakinarazpena

2014/08/18 → Alegazioak

2015/01/12 → Jabetzara sartzeko baimena eskatzen

(I.Eranskinean espedientearen fase gehienak)

2014ko abuztuaren 3tik *dies a quoa* kontuan izanda ere, 2014ko azaroaren 3ra arteko epe honetan **ez dirudi** interesdunari egotzi ahal zaion arrazoirik dagoenik espedientearen eteteko eta Udalak ere ez du espedientearen espresuki eten.

Ikusi dugunez, kasu honetan jabetzara sartzeari beharrezkoa ikusi ei zen espedientearekin aurrera egin ahal izateko eta lehen eskaera hori 2015eko urtarrilaren 12an egin zen. Ordurako jada espedientearen **iraungira zegoen**, izan ere, 2013ko azaroaren 4tik (eta 2014ko ekainaren 23tik ere) 3 hilabete baino gehiago pasa izan dira ebazpena jakinarazi barik. Are gehiago, gaur egun ere ebazpena ez da onartu.

D. Hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko akzioaren iraungitzea eteteari buruz

Aurretik zehaztutakoaren harira, honen inguruan esan behar da, Auzitegi Nagusiaren doktrinak zehazten duela iraungitasunaren arauak aplikatuta **ezin dela ulertu akzioaren iraungitasuna eten (interrumpi)** daitekeenik.



E. Preskripzio epea eteteari buruz

Espedientea iraungita badago espedientea berriz hasi beharko litzateke, beti ere, preskribituta ez badago. Izan ere, iraungitasunak **ez du berez preskripzioa suposatzen eta ez du preskripzio epea eteten. (interrumpi).**

Preskripzioan eteteak (*interrupción*) onartzen dira; besteak beste, interesdunari espedientearen hasiera jakinarazten zaionetik. Horrek esan nahi du, etetea (*interrupción*) pasata espedientearen preskripzio epea hasieratik hasten dela; hortaz, 4 urteko preskripzio epea zerotik hasiko litzateke kontatzen, salbu eta jurisprudenziaren esanetan¹⁷ izapidetutako espedientearen deuseztasuna edo iraungitasuna adierazten bada.

3. Ondorioak

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuz,

- Ematen du San Migeleko hirigintzako legalitatea berreskuratzeko espedientea **iraungita** dagoela, 2013ko azaroaren 4an hasi delako espedientea eta 3 hilabete baino gehiago eman direlako ebazpena eman barik, legez ezarritako kasuetan espedientea ez eteteagatik eta interesdunari inputa ezin zaizkion arrazoiengatik.
- Espedientea iraungita adierazten bada, horrek ez du kentzen **espediente berria zabaltzeko aukera**; beti ere, **akzioa iraungita ez badago**. Legalizazio espedientearen akzioa iraungita dagoen edo ez zehatzeko eta beraz udalak eraikinak eraisteko agindua emateko ahalmena duen ala ez zehatzeko **interesdunak frogatu** beharko du obrak edo lanak erabat amaitu direnetik, edo kanpo-itxurak horiek egin direla adierazten duenetik, lau urte igaro badira.

Dena den ezin dugu ahaztu ondorioztatzen bada legeztatzeko akzioa ere iraungita dagoela, etxe edo eraikin horiek **ez dutela hirigintzako araudia betetzen**; izan ere, **antolamenduz kanpo** dauden etxe edo eraikinen araubideari lotuta geldituko dira, eta

¹⁷ Auzitegi Gorenaren 2014ko irailaren 29ko epaia (RJ 2014/4502)



eraberritze, handitze edo finkatzeren bat egin behar den guztietan, legeztatze proiektu bat onartzea errekerituko da –legeztatzea posible bada behintzat. Baldintza hori bete barik edozelako obra egiten bada 4 urteko hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko akzioa egikaritzeko epea birzabaltzea ekarriko du, egindako lan berrien kontra.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Dena den, alkatean egoki deritzona erabakiko du.

Oh. Orri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002900E00I2O9T3V5N0W8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 19/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/07/2019
16:43:45

DOCUMENTO: 20190167950
Data: 19/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



I. Eranskina. Espedientearen aurkibidea

- 2013/04/17 → Salaketa
- 2013/04/19 → Arkitektoaren txostena
- 2013/04/26 → Idazkariaren txostena + proposamena
- 2013/05/06 → **TGBren erabakia → 1 hilabete eman ez lizentzia eskatzeko**
- 2013/10/03 → **BOEn publikazioa jakinarazteko**
- 2013/11/22 → Jakinarazpena jaso M. R.
- 2013/12/09 → Interesdunaren alegazioak
- 2013/12/11 → Salatzailearen eskaera: alegazioa
- 2013/12/30 → Akordioa alegazioak ez onartzen. Eraspina agintzea hasieraz onartzen da.**
- 2014/01/21 → Jakinarazpena jaso.**
- 2014/02/06 → Interesdunaren alegazioak:
- 2014/06/09 → Ekain txostena → Espedienteak bertan behera uzteko.
- 2014/06/23 → TGB erabakia → Espedienteak bertan behera uztea eta**
- 2014/06/30 → Jakinarazpena interesdunari (jasota 2014/07/02)**
- 2014/06/27 → Errefusatzea ez da onartzen.
- 2014/07/24 → Jakinarazpena (jasota 2014/08/08)
- 2014/07/23 → Frogaldia zabaltzen da. 5 egun
- 2014/08/01 → Jakinarazpena
- 2014/07/30 → Alegazioak ez errekusatzeari
- 2014/08/18 → Alegazioak
- 2015/01/12 → Jabetzara sartzeko baimena eskatzen
- 2015/04/21 → Autoa baimentzen sarrera
- 2015/05/22 → Salatzaileak informazioa eskatu
- 2015/06/02 → Erantzuna
- 2015/05/27 → Alkateak etxebizitzan sartzeko emango dituen pausuak zehaztu ditu eta epaitegira bidali
- 2015/06/13 → Etxera sartuko direla jakinaraztea BOEn.



- 2015/06/25 → Neurri kautelarrak eskatuta eteteko sartzeari etxean interesdunak
- 2015/06/25 → Interesdunak auzi errekurtsua
- 2015/07/24 → Interesdunak sartzeari etetea eskatzen.
- 2015/07/27 → Ekainen txostena. Ez dela eten behar adierazten.
- 2015/08/03 → TGBeko erabakia ez eteten.
- 2015/07/29 → Autoa. Neurri kautelarra zati batez onartzen
- 2015/08/05 → Ikuskapena bertan behera uztea.
- 2015/09/17 → Interesdunaren alegazioak. Espedientearen exekuzioa eteteko.
- 2015/09/09 → STSJ PV Eragin barik uzten du baimena
- 2015/10/08 → 546/2015
- 2015/09/19 → STSJ PV. Ezeztatu etete eskaria.
- 2016/01/18 → Etxean sartzeko baimena eskatzen.
- 2016/02/16 → BOEn jakinarazpena
- 2016/06/01 → 120/2016 Epaia SJCA: Artxibatu espedienteak, berriro hasi behar da.
- 2016/06/06 → Apelazio errekurtsua. Baimenaren ezezte-autoa, baimen eskaria artxibatu egin delako.
- 2017/02/15 → STSJ PV. 81/17 Apelazio errekurtsua ezeztatzen da, etxebizitzara sartzeko.
- 2017/03/07 → STSJ PV 120/2017 Etxebizitza lizentziaren aurka
- 2017/07/24 → 369/2017 STSJ PV errekurtsua baieztatzea
- 2017/08/08 → Salatzaileak informazioa eskatzen.
- 2017/11/09 → Etxera sartzeko baimena eskatzen
- 2017/12/30 → BOEn argitaratu. Jakinarazpena
- 2018/12/12 → Interesdunak iraungitasuna eskatzen
- 2019/01/10 → Ekainen txostena + AOTaren berrespena
- 2019/04/04 → TGB erabakia ezeztatzen alegazioak
- 2019/03/15 → Auzi errekurtsua. Interesdunak iraungitasuna eskatzen
- 2019/04/30 → 40/2019 Autoa. Etxera sartzeko baimena
- 2019/05/08 → Alkatetza Dekretua, etxera sartzeko agindua.
- 2019/05/21 → BOEn argitaratu
- 2019/05/20 → Interesdunak gelditzeko eskatzen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002900E00I2O9T3V5N0W8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 19/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/07/2019
16:43:45

DOCUMENTO: 20190167950

Data: 19/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



2019/05/22 → Ikuskapen akta

2019/05/22 → Sarrera akta

2019/06/07 → Arkitektoaren txostena

2019/06/11 → AOTaren txostena

2019/06/19 → STSJ PV 313/2019 Interesdunaren errekurtsua ezeztatzen da, sarrera baimentzen da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E30002900E00I2O9T3V5N0W8

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 19/07/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 19/07/2019
16:43:45

DOCUMENTO: 20190167950
Data: 19/07/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

